

19. EUSKAL DENDA

AURKEZPENA

Abendua laster izango da hemen eta, hile honekin batera, Durangoko Euskal Denda helduko zaigu. Badira 19 urte hasi ginenetik eta aurten berri dezenteekin gatozkizue. Berriro ere antolatu du Arbaso artisauen elkarte nazionalak Euskal Herriko artisautzaren erakusleihen garrantzitsutzat hartzen dutena. Azken urteotan tradizio bilakatu den legez, azoka hau Durangoko merkatu plazan egingo da abenduaren 5etik 8ra.

Aurtengo edizioaren leloa “Ametsak gauzatu” izango da. Lelo honen harira, Arbasoren filosofia errealtate bihurtuko da, hau da, artisauek edozein gauza lor dezakete, eta gustura bihurtuko dituzte bisitarien ametsak errealtate. Beraz, Euskal Dendan edozein amets artistiko edota artisautzako egia bihurtu daitekeela sumatu ahalko da. Krisi garai hauetan, egoera zail honetan, Arbasok honako mezua bidali gura du: nahikoa da nahi izatea.

Arbasokoek artisautzaren aitzindaritzat dute euren elkarte, gehienek lanbide zaharren aldekoak baitira, baina berrikuntza-plusa gehitu duten zenbait ere badira. Horrela bada, lanbide zaharrei eutsita, eraldatu eta garaikide bihurtu dituzte, beti ere, eskuz lantzeko ikuspuntu eta irizpidetik abiatuta.

Beste behin ere, Euskal Denda sektorearen erakusleihorik onena izango da. Helburu nagusia artisautza tradizionala zein garaikidea bultzatzea eta merkaturatzea da, beti ere, Euskal Herrian egindakoaren zigiluaz. Bestalde, azokan zehar, bisitariak bertatik bertara ikusi eta gozatu ahalko dute artisauen lanekin, eginkizun ia ezinbestekoa profesional hauek biziraungo badute; horixe baita gaur egun Euskal Dendaren funtsa.

Esperientzia honi esker, bisitaria ohartuko da lanbide zaharrak indarrean daudela, eta ez dela artisau piezen kalterako. Izan ere, piezei norberak ematen die bizia, dela apaingarri gisa, dela egunero erabiltzeko. Pieza guztiak eskulan eta artisautza prozesuen arauak errespetatuz diseinatzen dira. Euretariako askotan, ordea, artisauek berrikuntzara jotzen dute eta inspirazio iturria orainean eta geroan topatzen dute. Horregatik bada, gaur egun artisau izatea garaikide izatea da.

Ezin dugu ahaztu artisautza bizimodu bat dela. Halaber, gure herriaren balio kulturalak bultzatzeko eta garapen ekonomikoa sustatzeko modu bat da, baita galtzen doazen ogibideak bizi-iraunarazteko modua ere. Hartara, ekimen honen inguruan, Euskal Herrietako artisautzaren eta antzinako lanbideen gailenak batuko dira

Euskal Denda dirauen bitartean, hainbat ekintza ludiko egingo dira azoka barruan artisauaren eta bisitarien arteko interakzioa dinamizatzeko eta, azken batean, bisitaria artisautzaren munduan sararazteko.

PARTE HARTZAILEAK ETA ESPEZIALITATEAK

Euskal Dendak Euskal Herriko lurralde guztietako ordezkariak izango ditu. Guztira 50 erakusketari bilduko ditu, artisau arabar, baxenafar, bizkaitar, gipuzkoar, lapurtar eta nafarrak. Aurreko edizioetako kopuru antzekoa, baina nobedade moduan, aipatu behar da, aurten, hamabost profesionalak lehenengo aldiz parte hartuko dutela.

Beste behin ere, Bizkaia izango da ordezkari gehien izango dituen lurraldea, 19 artisau, hain zuzen ere. Gipuzkoak 17 izango ditu, Nafarroak 4, Arabak 3, Nafarroa Beherak 2 eta Lapurdik bat. Betidanik izan da Durangaldea artisautzaren epizentro garrantzitsua. Aurten ez da gutxiago izango, Bizkaiko eskualde honen izena bost artisauk eramango dute. Durangoko Restaurarte, 2010eko stand onena sariaren irabazlea; Jaio Gazta, gazta ekoizle iurretarra; Elorrioko Wandel, larrua lantzen duen sortzailea eta iazko stand onena saria jaso zuena aurten ere Euskal Dendan izango da. Esparru hau Bea Unzuetak eta Eneko Unzaluk biribilduko dute.

Sektorekako ordezkartzari dagokionez, honakoak izango ditugu: sei nekazaritzako elikagaien arlokoak, lau beirakoak, hamar metalekoak. Halaber, landare zuntzak lantzen duten bi, zeramikako bost eta egurra lantzen duten zazpi izango dira aurtengoan. Ehungintzari dagokionez, zazpi erakusketari aipatu behar ditugu, eta larrugintzan lau. Gainera, denbora eta espazioa emango zaizkie zaharberritzaile bati, euskal kirolari eta kosmetikari. Birziklatutako gaiak ere erakusmahaia izango dute.

Erakusketari berriak hamabost izango dira. Lehen aldiz etorriko dira Bizkaitik Sua Joyeros, Argentcolor eta Evaren Bitxiak, eta Gipuzkoatik Shuaia Bitxiak eta Pitxipolit. Berriak izango dira Davina de Diego eta Idoia Musa, lehena bizkaitarra, bigarrena gipuzkoarra eta biak originalak. Nekazaritzako elikagaien ekoizleen artean, Arnabar eta Betikogia izango dira berriak. Lehendabiziko Euskal Denda izango da Martina Menke eta Mai KyKrentzat, biek ehuna lantzen duten artisauak, eta aurtengo azokan Lur Zeramikak eta Errealkubok ere parte hartuko dute.

Irungo Alberdi Makilak etorriko da Durangora. Ezin dugu ahaztu orain dela bi urte saga honen aitak, Iñakik, Bizitza Osoa Artetsu Saria jaso zuela. Hark lana egiteari utzi zion, alabaina, seme-alabek hartu dute tailerra.

2014ko JARDUERAK

Euskal Dendaren arauetako bat bisitariak artisautza tradizionalen murgiltzea da. Asmoa baita antzinako lanbideak ezagutaraztea eta horietan sakontzea. Horregatik bada, edizio bakoitzean, bertan, zuzeneko erakustaldien alde egin da. Horixe baita, azoka honen zutabeetako bat, eta aurten ere izango dira han bertan artisauen erakustaldiak, zeinetan bisitariak parte hartzera gonbidatuta dauden.

Halaber, Euskal Dendaren lau egunetan, “artisans despistatua” lehiaketan parte hartu ahalko dute bisitariak, beraiek hautatuko baitute zein izan den erakustoki onena. Zozketak ere izango dira: erosketa-baleak eta egurra lantzeko ikastaroetan parte hartzea.

KULTURA GONBIDATUA

Aurtengo Euskal Dendaren edizioaren kultura gonbidatua Okzitania izango da. Gertu daukagu Okzitania, hala ere, herri ezezaguna egiten zaigu, egoera hori gainditzeko hango lau artisans etorriko dira. Beraei esker haien ohiturak eta usadioak ezagutuko ditugu.

Lleidatik Taller Bausen etorriko da, baita harria lantzen duen Ariza tailerra ere, eta egurrezko tailerra Pcorfer eta Piers Bausen.

Hauek laurok euren artisautza eta berezitasuna aurkeztuko dizkigute, eta euren kulturaren murgilduko gaituzte.

ARTETSU GALA

2005ean hasi ginen Artetsu sariak ematen, Arbaso elkartearen hamargarren urteurrenarekin batera. Sari hauen bitartez, banakakoen edota entitateen lana aintzat hartu nahi dugu. Halaber, konplizitaterako bidea eta loturak sortu nahi ditugu aipaturiko lan hori apurka-apurka hazten joan dadin eta, era horretan, gure artisautzaren aldeko hain garrantzitsua den kontzientziazioa ere eragingo dugu.

Horregatik bada, zentzu guztietan artisautzaren alde egiten duten artisauak, erakundeak eta hedabideak saritzen ditugu. Bederatzigarren edizio honetako Artetsu sariak honakoak izango dira:

BIZITZA OSOA: Lurbe Zeramika. Itziar Begoa eta Gloria Etayo.

ERAKUNDEAK LAGUN: Sondikako Udala.

HEDABIDEAK: BERRIA.

GURE TRADIZIOAK HEDATZEA: Aranzadi.

EUSKARA SUSTATZEA: Korrika.

Sariak emateko gala abenduaren 5an, ostiralean, egingo da San Agustin Kultur Gunean, arratsaldeko 20:00etan. Sariaren ikurra esku bat da, gai eta tresna nahitaezkoa, ezinbestekoa artisautzan jarduteko. Beiraz eginiko alegoria bat da, gardentasuna, argia, ardura eta lan-xehetasuna adierazten dituena. Egilea, Bilboko Iker Sanz da, Iger by Aker artisau-tailerrekoa.

Hona hemen, sortzaileek piezari buruz duten ikuspuntu poetiko eta filosofikoa:

“Hastapenetara atzera eginez gero, esku sendoa ikusten dugu, oinarrizko tresna itxuraduna. Zabalik dago, unearen zain, ideia-aren zain, prest aldaketa has dadin. Biluzik dago eta, milioika argi tindatuk inguratuta, bere barrena zeharkatzen uzten digu; badirudi aurkako material aldakor batek osatu duela”.

ARBASO: sustatzaileak

Arbaso da Euskal Dendaren eragilea; Gizarte Izaera duen irabazi asmorik gabeko elkarte da. Helburu nagusia honakoa du: euskal artisautza tradizionala eta garaikidea bultzatzea Euskal Herrian.

Arbaso izaera nazionala duen artisauen elkarte bakarra da Euskal Herrian. Ia ehun artisau-tailer biltzen ditu. Helburuak honakoak dira:

- Euskal artisautza sektorearen ordezkariak izatea.
- Artisautza tradizionala ezagutaraztea eta egunero erabiltzea sustatzea.
- Labela edo jatorrizko izendapena lortzea euskal artisautza tradizionalarentzat. Gipuzkoan eta Nafarroan badugu kalitate-etiketa bat.
- Euskal artisautza eta kultura sustatu nahi duten erakunde publikoen eta pribatuen inplikazioa lortzea.
- Eguneroko artisauen lana zaintzea, berori baita gure ondare kulturalaren etorkizuneko giltzarria. Laburbilduz, belaunaldi berriei ezagutzera ematea gure herriaren usadioak, kultur tradizioan aberatsak gara-eta

FITXA TEKNIKOA

EDIZIOA: 19.a

DATA: abenduaren 5etik 8ra

ORDUTEGIA: Goiza, 11:00 - 14:30
Arratsaldea, 16:30 - 21:00.
Ostirala 5, 19:00ak arte.
Igandea 8, 20:00ak arte.

INAUGURAZIO OFIZIALA: Ostirala 5, 12:00etan

ARTETSU SARIAK: Ostirala 5, 20:00etan. San Agustin Kultur Gunea.

SALGUNEAK: 50

LURRALDEKA

Araba 3
Nafarroa Behera 2
Bizkaia 19
 Durangaldea 5
Gipuzkoa 17
Lapurdi 1
Nafarroa 4

SEKTOREKA

Nekazaritzako elikagaiak 6
Beira 4
Metala 10
Landare zuntzak 2
Zeramika 5
Egurra 7
Ehungintza 7
Larrua 4
Zaharberritzea 1
Bestelakoa 1
Euskal Kirola 1
Kosmetika 1

KULTURA GONBIDATUA

OKZITANIA: Lleida 4

ESLOGANA: Ametsak gauzatu

LEKUA: Durangoko Azoka
1.600 m²

LEHIAKETAK: Artisau despistatua
Publikoren ustez, erakustokirik politena.
Zozketa: Erosketarako baleak

BABESLERIK NAGUSIENA: Bizkaiko Foru Aldundia
BABESLEAK: Durangoko Udala
Durangoko Turismoa
DEIA
BERRIA
GARA
ONDA VASCA

INTERNETEKO HEDAPENA: www.euskaldenda.info
euskaldenda.blogspot.com/
Euskal Denda Facebook
www.arbaso.com

HEDABIDEAK: Lorea Madina
prentsa@arbaso.com
607 86 32 24